

KOKUK Zuhaiutza



Sustraiak zoruan barneratzen dira eta zuhaitz osoari eusten diote. Programa Kokurrikularra **curriculumarekin** zuzenean lotuta dago eta ikasleen eskubideak ditu oinarri.

Enborra da zuhaitzaren egituraren elementu nagusia eta, era berean, **adarrei** eusten die. Irizpide nagusiek programaren **Faktore Kokurrikularra** konfiguratzeko dute eta **jarduera kokurrikularrei** eusten diete.

Hostoek sorrarazten dute zuhaitzaren energia. **Ikasleak** dira programaren hartzaileak eta prozesu osoaren protagonista aktiboak.

Enborearen bidez zuhaitzaren sustrai eta adarrek bat egiten dute, **adaburua** osatzen duten hosto guztietara iritsiz. Programa Kokurrikularretan ekintza guztiak **SAREAN** elkarlotuta egon behar dira **Hezkuntza Komunitatearen** gainerako atalekin.

Faktore Kokurrikularra

Faktore Kokurrikular izendatu duguna zera da, eskola-ingurune batean burututako gizarte-heziketako ekintza orok, kokurrikular gisa uler dadin, bete behar dituen irizpide nagusi hauek:

Berariazko Ekintza:

Helburuak aldeztatik diseinatu behar dira ikastetxe bakoitzeko arrisku- eta babes-faktoreak nahiz sustapenerako inguruneak kontuan izanik.

Esperientzia Adierazgarri eta Atsegina:

Ikasleak erabakiak hartzerakoan protagonista izan behar dira: konpromisoak, ordutegia, lantzeko edukiak, arauak, eta abar, beren lorpenekin goz dezaten.

Elkarrekintza Hezkuntza-komunitatearekin:


Ingurune orekatzaile alternatiboak eskaini behar ditu, konpetentziak ahalik eta gehien garatzeko, bereziki, gizartearekin eta herritar izatearekin lotutakoak, ikaslearen osasuna, autonomia eta elkartasuna bultzatuz, modu horretan, **hezkuntza formalaren luzapen** bilaka dadin.

Curriculumarekiko Lotura:

Koordinazioa tutore, ikasketa buru eta orientatzailearekin; koordinatzaile kokurrikularrek ikasleak banaka artatzea bermatu behar da, areagotu nahi diren konpetentziak oinarritzat hartuta.

Koordinatzaile Kokurrikularra

Programa inplementatzeko estrategikoki eta operatiboki ikastetxeetan txertatzen den profesionala da, bere gizarte-heziketako ekintza besteekin koordinatuz:



Bere profil profesionala betetzen dituen funtzioek eta zereginek zehazten dute: **gizarte-heziketako esku-hartze zuzena**, landa-lana, hezkuntza aholkularitza eta jarduera kokurrikularren ezarpena, koordinazioa eta etengabeko ebaluazioa.

Halaber, funtsezkoa da haren **diziplinarteko lana**, hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin **SAREAN** jokatzeko.

ASTEA	EGITURA	IRAUPENA	EDUKIEN LABURPENA
	HASIERAKO BILERA IKASTETXEKO IRAKASLE TALDEAREKIN	1,5 ordu	Programaren aurkezpena eta taldearen diagnostikoa
1.-	IKASLEEI AURKEZTEA	1,5 ordu	Sareko jarduera kokurrikularra eta kontratu hezitzailea aukeratzea
2.-	KULTURARTEKOTASUNEAN SAKONTZEA	1,5 ordu	Zeharkako ildoak eta landu beharreko helburuak identifikatzea
	GIZARTEAREKIN ETA HERRITARREKIN LOTUTAKO KOKURRIKULARRA	1,5 ordu	KIN-BALL: kirol inklusiboa eragiteko ekintza gisa
3.-	SAREKO JARDUERA KOKURRIKULARRA	3 ordu	Pedagogia intentsiboko esperientzia esanguratsua
4.-	BUKAERA	1,5 ordu	Hausnarketa eta ebaluazioa
	AMAIERAKO BILERA IKASTETXEKO IRAKASLE TALDEAREKIN	1,5 ordu	Droitidazki-txostena aurkeztea

DHARRAK

- Interesgarritzat jotzen da saioetan taldearen tutorea egotea
- Programa gauzatzeko denbora banaketa eta behar diren baliabideak lehen saioan zehaztuko dira
- Sareko jarduera ikastetxetik kanpo egingo da, hezkuntza komunitatearen gainerako kideekiko interakzioa sustatzeko
- Programa, proiektuak eta jarduera kokurrikularrei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero: www.kokuk.org